



361 egun zain!!

www.zitek-akademia.com

**UDA
HONETAN
ZER
EGINGO
DUZU?**



**Irakurketa AZKARRA eta
ULERMEN irakurle TAILERRA**

**Ikasteko teknika
TAILERRA**

**JOKO matematiko eta
ARRAZOIKETA logiko TAILERRA**

**TAILERRAK:
MEKANOGRAFIA + WORD ingelesez
ESKULANAK ingelesez
ESKULANAK frantsesez**

**Datorren ikasturterako
BERRIKUSTE eta HOBEKUNTZA**

**MARRAZKETA TAILERRA:
erretratu eta hiri marrazkia**

**INGELES intentsiboak:
KET - PET - FIRST - ADVANCED**

**TXOKOen ordutegi berezia:
8:45-9:45**

zitek
zientzieskola
Goikale Kalea, 12
Lasarte-Oria, Gipuzkoa
T:943363106
E: info@zitek-akademia.com



*San Pedro Jaietako
argazki eta
bideoak
txintxarri.eus
orrialdean dituzue
ikusgai*



Ohartzerako igaro dira aurtengo San Pedro jaiak ere. Azkar pasa dira lau egun horiek, baina ez da seinale txarra, herritarrek gogotik gozatu dutenaren adierazle baita. San Pedroekin batera amaitu dira baita ere Sorgin Jaiak, ekintzaz jositako bost egunen ostean. Iragan urtean ez bezala, eguraldiak ez ditu festak zapuztu eta igandean izan ezik eguzkia izan da San Pedroen lagunik onenetako bat. Horren ondorioz, arrakastuak izan dira Biyak Bat konpartsa, Ttakun KEren kantu-jira eta Aterpearen sardin-jana bezalako ekintzak. Hitz hori erabili daiteke baita ere Zea Mays, Gozategi, Gatibu eta Ze Esatek! taldeen kontzertuak deskribatzeko, Okendo plaza bete egin baita. Txupinazoetan ere atera dira herritarrak kalera, jaien etorrera ospatzera. Ospatzeko zer edo zer eduki dute baita ere Biyak Bat erretiratuen elkarteak eta Ostadar S.K.T-k, aitortza jaso baitute Udalaren partetik. Gandiako koadrila batzuek ere gozatu dute festez, Sorgin Jaiak-ek gonbidatuta. Denonak izan dira festak.

**hurrengo
zenbakia**

txintzarri

Uztailaren 6an

**Informazio gehiago txintzarri.eus
orrialdean edo sare sozialetan**

Diruz laguntzen duten erakundeak

Babeslea



Txintzarri ez du bere gain hartuko iritzi-artikuluetan edota irakurleen gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.

Laguntzailea



Argitaratzailea:

Ttakun Kultur Elkartea
Geltoki kalea 4
20160 Lasarte-Oria
943 366 858/943 371 448
G-20407557

Legezko gordailua:

SS513/93
ISSN: 1134-0053

Inprimategia

Zeroa Multimedia, S.A.

Aleak zenbakiko: 7.800

txintzarri

Erredakzioa:

Maidar Azurmendi, Nerea Eizagirre, Iñigo Gonzalez
txintzarri@txintzarri.info

Publizitatea eta administrazioa:

publizitatea@ttakun.com
administrazioa@ttakun.com

Laguntzaileak:

Unai Muñoa, Gorka Lasa, Ane Labaka, Mailu Arruti, Asier Odriozola, Jone M. Hernandez, Jexux Artetxe, Pako Aizpitarte, Edu Galardi

Informatikoa:

Xabier Amadoz



Garai batean herrian zegoen industrializazioak erakarrita etorritako langileak irudikatu nahian jantzi zen gazte talde bat eta Beñat Iriondok irakurri zuen pregoia.

Lehenengoak, Sorgin Jaiak

Urtero bezala Sorgin Jaiekin hasi zen festa. Haurrenzako joko eta tailerrak antolatu ziren Okendon, Kuadrillen jaitsiera Isla plazatik egin zuten eta afari herrikoi eta kontzertuek parrandari jarraipena eman zioten.



Langileria omendu nahi izan zuten.- Langileria omendu nahi izan dute aurtengoan eta txupina jaurti aurretik, herrira etorritako langileak gogoratu zituzten baita egun, atzerrira lan bila joan behar duten herriko gazteak ere. Michelinen 100 eguneko grebaren ondoren langileek lortutako galdu dela ere salatu nahi izan zuten pregoian. Aldarrikapenen barruan Xirimiriren aldekoa ere entzun zen.



kima masaje-lekua 

Goyo Martin
Xabier Carbayeda

JAI ZORIONTSUAK IGARO
IZANA ESPERO DUGU!
Kale Nagusia 44 • Tel.: 943 366197
LASARTE-ORIA

ADURIZ DE LASARTE S.A

 ONDO PASA IZANA
ESPERO DUGU!

Solompa baratxuritan
Ετρεκο txorizon
Txistorra



Odolkia· Solompa ontzutua
Tripakia· Saltxitxak
Basurde burua
Baserri patea

BERTAKO FABRIKAZIOA

Loidi Barren kalea 3 • 20160 Lasarte-Oria • Tel.: 943 361278 - 943 361655 - 943 362451



Txupina jaurti aurretik, haurrentzako jokoak izan ziren Okendon eta Kuadrilla jaitsiera.



Kuadrillek ibilbidea girotzen izan zuten Mendaroko Motxiaia taldea. Herri afariak beste behin harrera ona izan zuen parrandaren aurrekari modura.



Gauean King Kong Boy eta Eskean Kristo taldeak aritu ziren giroa ordu txikiak arte Okendo plazan jartzen. Batez ere gazteenentzat lehenengo parranda gaua izan zen osteguneko.

SEMBLANTE ANDALUZ



SAN PEDRO JAI ALAIAK
PASA IZANA ESPERO DUGU!

Golf plaza 2
Lasarte-Oria
Tel.: 943 363699

 **NOAOA BIDAIK**
GRUPO CLICK VIAJA

ERRESERBAK ETA INFORMAZIOA
943 373 613
info@noaoabidaiak.com

Llegamos donde
internet no llega...

eskeintza gehiago
www.noaoabidaiak.com **ZORIONAK!!!**

Hipodromo Etorbidea N°10 - 20160 Lasarte Oria Gipuzkoa

UDA BERRI
Taberna

SAN PEDRO JAI ONAK
PASA IZANA
ESPERO DUGU!



Golf plaza 7, behea
Tel.: 943 370410
20160 LASARTE-ORIA



Ekainaren 26a

San Pedro jaiari hasiera eman zitzaion ostiralean haurren txupinazoarekin. Aurten-
goan Ostadar SKT-ko gaztetxoak izan ziren hau jaurtitzeko ardura izan zutenak, zehaz-
ki saskibaloia ataleko kadete neskek. Jai lehertzearekin, lau eguneko festa etengabea.
Haur bazkaria, Sorgin Dantza, Sorgin Jaien lokal poteoa eta kale kontzertuak izan
ziren arratsaldean. Gauean berriz, Zea Mays eta Gozategi taldeek plaza bete zuten.



Hasiera koloretsua.- Haurren txupina eguerdian jaurti zuten Ostadar SKT-ko kadete
neskek. Txupina bota baino lehen haur eta gazteei blusa jantzi eta haientzat antolatutako ekintzez
gozatzeko deia egin zieten. Era berean, denboraldi honetan lagundu eta babesa eman dieten guraso
eta lagunei eskerrak eman zizkieten, baita saskibaloia taldeetan parte hartu nahi duenari atea ireki
ere. Horregatik, irailean entrenamenduak hasten dituztela jakitera eman zuten animatu nahi duten
gaztetxei gonbitea luzatuz. Txupinazoarekin batera, globoak jaurti ziren eta Kale Nagusitik batetik
bestera ibili ziren herritarrek bere egin arte. Era berean, Erraldoien konpartsa Oriako txarangako
lagunen doinuen laguntzaz atera zen eta Txorotxarangako kideak ere martxan jarri ziren.

Garcia
AUTOBUSAK

Nafarroa etorbidea 32-2. A
(Leku Eder etxea)
Tel.: 943 372737
20800 ZARAUTZ

ONDO IGARO IZANA ESPERO DUGU!



• Edozein eratako bidaiak
egiteko zerbitzu
aproposak.

• Bestelako
zerbitzuak.





Festarako prest!.- Haur eta gaztetxoak eguerdia baino lehen kalean ziren lagunekin kamisetak prestatzen. Txarangak eta buruhandi eta erraldoien dantzak jendetza erakarri zuen Okendo eta Kale Nagusira. Jaiak hasteko gogoz ziren herritarrek eta lehenengo goiza gaztetxo eta umeena zela argi geratu zen herriko kaleetan.



Haur bazkari eta ur jolasak.- Txakunek antolatutako bazkariara joan ziren ia 300 haur eta gaztetxo. Ohi bezala Atsobakar parkean egin zen eta bertara Txorotxaragaren laguntzarekin kalejiran joateko aukera izan zuten. Makarroi jana lagun artean egin eta jarraian ur jolasei hasiera eman zitzaion. Eguraldi ederra eta beroa lagun, ederki ibili ziren bata beste bustitzen. Auzokideei ere eskatu zieten etxetik ura botatzeko.



**ARRIESKALLETA
ELKARTEA**

FAMILI GIROAN OSPAKIZUNAK
EGITEKO TXOKO EDERRA

**Kale Nagusia 10 behea
20160 Lasarte-Oria
Tel.: 943-249305**



EGIN ZAITEZ BAZKIDE!!!



**SAN PEDRO JAIK
EDERKI IGARO
IZANA ESPERO DUGU!**



Sorgin Dantza jendetsua.- Iaz antolatzaileak pozik azaltzen ziren 300 lagun baino gehiago elkartu zirelako sorgin dantza herrikoian. Aurtengoan zenbaki hau gainditu eta 325 inguru izan ziren kalera dantzan atera zirenak. Oriatik abiatu zen desfilea haurren zortzikotea buru. Horrela erdigunera egin zuten ibilbidea Biyak Baten aurrean eta Kale Nagusian geldiuneak eginda Okendora iritsi ziren garaiz. Bertan dantzari guztiak kokatu ziren azken Sorgin Dantza plazan bildutako jendetzaren aurrean dantzatzeko.



JAIETAN GOZATU IZANA ESPERO DUGU!

Bizikleten salmenta eta konponketa

MKL txirrindak

Geltoki kalea 25, atzealdea **tel 943 36 16 14**

Lasarte Oria 20160

AIZPURUA

Pinturak

JAIETAN ONDO IBILI IZANA ESPERO DUGU!

* Pintura plastikoak bereziki.
* Nahi duzun kolorea egingo dizugu momentuan.

Zumaburuko industrialdea
LASARTE-ORIA
Tel.: 943 362153

LAGUNAK

LAGUNAK
ELEKTRIZITATE DEBIDA

GOZATU IZANA ESPERO DUGU!

Etebizitzetako eta komertzioetako...

INSTALAZIO ELEKTRIKOAK

Geltoki kalea 6, behea
Tel.: 943 371077
LASARTE-ORIA



Jaien hasiera ofiziala.- Azken urteetan bezala arratsaldeko txupinazoak jendetza bildu zuen Okendo plazan. Pregoia Biyak Bat eta Ostadarreko kideek bota zuten balkoitik. Biyak Bateko Exiquio Perez eta Adela Mansok balkoitik eskerrak eman zituzten omenaldi honengatik udalari eta elkarteak dituen urte guztietan laguntza eman duten herritarrei ere. Jarraian, Aitor Azkonobietak hartu zuen hitza Ostadar-Saiarre kirol taldearen izenean. Honek ere herritarren babesa zuen "32 urteko ibilbide honetan asko izan direlako Ostadarren parte hartu dutenek". Horretaz gain, Biyak Batekin batera omenduak izatea ohore bat zela aipatu zuen. Ostadarren urteko zenbakiak eman zituen eta astero-astero Ostadarrekin kirola egiten duten herritarrek aipatu zituen modu berezian. Horretaz gain, kirola helburu, bidelagun askorekin kontaktzen dutela aipatu zuen. 32 urte hauetako ibilbide oparoari jarraipena emateko ordea, hiru eskaera luzatu zituen Azkonobietak, "herriaren babesa, instituzioen inplikazioa eta belaunaldi berrien txutea". Aldarrikapenerako tartea ere izan zen txupinazoaren baitan eta hainbat herritarrek preso gaixoen askatzea eskatu zuten, dispertzioaren kontrako pankartak atera eta Xirimiri libre leloa zeraman kamisetak jantzi zituzten edota zapi laranjak elkartasuna adierazteko.



Sorgin Jaikoek lokal poteoa egin zuten iaz bezala eta gazte asko batu ziren herrian zehar poteo berezi hau egiteko. Familia argazkia ere atera zuten hasi aurretik.



Gandiatik herriko festetara etorritako lagunei ongi etorria egin zieten Sorgin Jaiak-eko kideek.



Euskorleans Dixie band taldeak herriko kaleak girotu zituzten,



Gabezia taldeak kontzertua eskaini zuen Sorgin Jaiaken egitarauaren barruan Kale Nagusian. Kanta batzuk eskaini zituen herriko talde bakoitzak eta jende asko gerturatu zen euren doinuez gozatzera.



Obito taldekoak ere izan ziren Kale Nagusian.

JAI ZORIONTSUAK IGARO IZANA ESPERO DUGU!!!



INTZA ELKARTEA



INTZA K.E. LASARTE



Sagardotegi kalea • LASARTE-ORIA Tel.: 943 361534



The Garax taldearen kontzertuan ere zaleek gozatzeko aukera izan zuten.




Zikiro jana eta lehenengo parranda gaua.- Beste behin jaien lehenengo egunean herritarrek zikiro afaria oparora egiteko aukera izan zuten. 200 bat lagun elkartu ziren Ttakunek urtero antolatzen duen hitzorduan. Arratsaldeko lehen orduan hasi ziren sukaldariak lanean eta haragia maisuki prestatu zuten hutsik egin gabe. Jendeak errepikatzeak aukera izan zuen eta afaria giro ederrean igaro zen.

Okendoko kontzertuak gogoko ez zituztenentzat, Ibai Berriak taldeak Isla plazan emanaldia eskaini zuen eta bertara jende asko hurbildu zen dantzatzeko gogoz. Adin guztietako herritarrek egon ziren bertan eta mota eta garai guztietako kantez gozatzeko aukera izan zuten. Koreografia asko primeran ezagutzen zituztela erakutsi zuten herritarrek pauso guztiak osatuz.



Geltoki kalea 21 • Tel.: 943 362467 Faxe: 943 372794 • Lasarte-Oria
E-maila: muebleszubi@hotmail.com



OSO ONDO PASA IZANA
ESPERO DUGU!





Zezen Suzkoaren aurrean asko izan ziren korrika egitera animatu zirenak. Zea Mays taldearen kontzertuak Okendo girotu zuen.



Aiora Renteriak dantzan jarri zituen plazan bildutakoak. Koadrillek ederki gozatu zuten ostiral gaua.



Gozategik bere doinuekin jende pila erakarri zuen, plaza bete arte. Betiko jai giroko kanteak dantzan jarri zuten herria.



JAI ALAIAK PASA IZANA ESPERO DUGU!



Kale Nagusia 40 • Tel.: 943 363964 • LASARTE-ORIA



GOZATU IZANA ESPERO DUGU!

- AZALEZTATZEAK
- PLASTIFIKAZIOAK
- ESTANPAZIOAK
- FAX-ZERBITZUA
- FOTOKOPIAK

**Kale Nagusia 34 • Tel.: 943 366930
Faxa: 943 366931 • Lasarte-Oria**



ile-apaindegia

ONDO IGARO IZANA ESPERO DUGU!

Geltoki kalea 3
Mobila: 600 523988
LASARTE-ORIA

Ekainaren 27a

Kirol ekitaldiek hartu zuten protagonismoa larunbat goizean. Ttiriki-Ttarrakoen dianak herria esnatu eta errugbia, patinatzaileak, pilota eta palaz gozatzeko aukera izan zen. Tximistarretako herri bazkariak arrakasta izan zuen eta antzerki eta musika emanaldiek jai giroa borobildu zuten.



Ttiriki-Ttarrakako kideek herria esnatu eta parranderoak etxera bidali zituen. Goizean goizetik errugbi partidak eta maila ezberdinetako pilota partidez gozatzeko aukera izan zen.



Patinatzaileek erakustaldia eskaini zuten Okendon. Adin guztietako patinatzaile trebeek hainbat ariketa burutu zituzten herritarren harridurarako. Gurgil gainean zeinen ondo moldatzen diren erakutsi zuten.





3. denbora ospatu zuten Beltzak Ostadarrekoek Okendo plazan.



Larunbat eguerdian jokatu zuten emakumezkoen pala txapelketa Loidi Barren frontoian.



Pilota partida eta pala txapelketaren finalaren ostean sariak banatu zituzten antolatzaileek.

Kirola eta aisia presente jaietan.- Rugby-a, pilota eta pala izan ziren protagonista larunbat goiz eta eguerdi partean. 10:30ean jarri zuen hitzordua Beltzak Ostadar rugby taldeak, Michelingo zelaian. Giro ederrean jokatzeko aritu eta gero, 3. denbora egin zuten denek elkarrekin Okendo plazan. Ordu berean hasi ziren pilota partidak Loidi Barren frontoian. Kategoria desberdinetako hainbat pilotari aritu ziren nor baino nor gehiago, hainbat ikusleren begiradapean. Emakumezkoen pala txapelketako finala ere jokatu zuten larunbat eguerdian: Kris Alvarez eta Naroa Urbieta gailendu ziren, 18-15 irabaziz Ohiane Lizaso eta Itziar Bermudezi. Sari guztiak amaieran banatu zituzten antolatzaileek.



Larunbat osoan zehar gozatu zuten gaztetxoek Andatza plazako haur parkeaz. Puzgarriak eta antzeko hainbat jolas prestatu zituzten antolatzaileek.





Jendez bete zen Tximistarreta parkea larunbat eguerdian. Koadrila ugarik bazkaldu zuten Sorgin Jaiak-ek antolatutako bazkari herrikoian.



'El que entra no sale' txirigotak eta 'Los niños de la Mary' taldeak barre algarara asko eragin zituen Okendo plazara hurbildu ziren ikusleen artean.



Bazkari herrikoia Tximistarreta parkean.- Goizeko ekitaldietan parte hartu ondoren, hainbat herritar joan ziren Tximistarreta parkera bazkari legea egitera. Antolatzaileek eramandako mahai, aulki eta parrillak banatu zituzten herritarrek eta bazkari goxoak prestatu.

Arratsaldean berriz, 'Los niños de la Mary' laukoteak eta 'El que entra no sale' txirigotak umorea eta barre algarak ekarri zituzten Okendo plazara. Hainbat ikuslek gozatu zuten emanaldiaz eta eserlekuak bete zituzten, nahiz eta horien erdiak eguzkipean egon. Txirigotak bukatu eta berehala, Sorgin Jaiak-ek antolatutako mus txapelketa hasi zen. Haur, gazte eta helduak elkartu ziren kartetan tarte on bat igaro eta arratsaldea pasatzeko.



e
Eztipphoto

Ezkontzak · Bideoak · Jaunartzeak · Haur eta familia argazkiak · Modelo Book-ak

Golf plaza 4 behea
Atsobakar. Lasarte
Tel: 943 900 565
info@eztphoto.com
www.eztphoto.com



Trapu Zaharra antzerki taldeak 'La conga' taularatu zuen Elizatze plazan. Andatza plazan berriz, haurrek gogotik gozatu zuten 'Tuturutu pailazo bihurtu' ikuskizunarekin.

Herriko plaza eta kaleek hainbat ekintza hartu zituzten arratsaldean.- Inork ezin dezake esan larunbat arratsaldean aspertu egin zenik, hamaika ekintza antolatu baitzituzten elkarte eta eragileek. Antzerkia gustuko zutenak Elizatze eta Andatza plazara gerturatu ziren; Trapu Zaharra antzerki taldeak 'La conga' taularatu zuen Elizatzen, eta Andatza plazan 'Tuturutu pailazo bihurtu' ikuskizunaz gozatu zuten haur eta helduek. Bestalde, Pablo Mutiozabal kalean Sorgin Jaiak-ek pare bat kontzertu antolatu zituen: Keep Diggin eta Parrandarako Horkresta taldeek dena eman zuten DBHko institutu parean inprobisatutako eszenatokian. Bien bitartean, The McKensy's taldeak herriko kaleak girotu zituen.



Keep Diggin eta Parrandarako Horkresta taldeek kontzertuak eskaini zituzten DBHko institutu parean. Bien bitartean, herriko kaleak girotu zituen The McKensy's taldeak (goian).



JAI ZORIONTSUAK
PASA IZANA ESPERO DUGU

360 EGUN
FALTA DIRA
HURRENGO
SAN PEDROETARAKO



LASARTE-ORIA
UDALA - AYUNTAMIENTO

guztiona



Amaia Gonzalez Caballeroren taldeetako ikasleek areto-dantza erakustaldia eskaini zuten Manuel Lekuona kultur etxean.

Gorputza mugitzeko ekitaldi

ugarri.- Arratsaldean Amaia Gonzalez Caballeroren ikasleek mugitu zuten gorputza, areto-dantza erakustaldia eskaini baitzuten Manuel Lekuona kultur etxean. Gau partean berriz, Azabache taldearen doinuek lagunduta etenik gabe egin zuten dantza hainbat herritarrek Isla plazan. Okendo plazan berriz, Gatibu talde bizkaitarrak ikuskizun paregabea eskaini zuen. Haien kanturik ezagunenetako batzuk jo zituzten: 'Bang bang txik txiki bang bang', 'Bizitzeko gogoa'... Disko berriko hainbat ere bai, 'Euritan dantzan' ezaguna barne. Talde bizkaitarrak herriko Xirimiri elkartearekin keinua ere izan zuten, 'Xirimiri libre' kamiseta laranja jantzi baitzuten kontzertuan bertan. Kale Nagusian hainbat gaztek egin zuten lasterka zezen suzkoaren aurrean.



Okendo plaza bete egin zen Gatibu talde bizkaitarraren kontzertua ikusteko. Alex Sardui buru duen taldeak ez zuten hutsik egin eta ikuskizun paregabea eskaini zuen.



JAI ZORIONTSUAK IGARO IZANA ESPERO DUGU!

BURUNTZ-AZPI

ARRANTZA ETA EHIZA
ELKARTEA

Basaundi bailara 9
Tel.: 943 370685
LASARTE-ORIA





Gatibu talde bizkaitarrak dena eman zuen eszenatokian, ikusleen gozamerako. Asko izan ziren Okendo plazara hurbildu ziren ikusleak, bai herrikoak eta baita Euskal Herriko hainbat puntutakoak ere.

Sua eta musika nagusi gauean.-

Gatiburen emanaldiaren ostean, 'Ze Esatek!' talde donostiarraren ska doinu fresko eta biziek dantzan jarri zituzten Okendora hurbildu zirenak. Euren errepertorioko abestiak jotzeaz gain, AHT eta errauste plantaren aurkako kantak taularatu eta bertsioren bat edo beste ere jo zuten. Kale Nagusian, kontzertua baino lehen 'La locomotora del infierno' ikuskizun piroteknikoa izan zen ikusgai.



Ikusgarria izan zen 'La locomotora del infierno' ikuskizun piroteknikoa. Argiz eta suz bete zen Kale Nagusia.



Gatiburen emanaldiarekin nahikoa izan ez bazuten, Ze Esatek! talde donostiarrak dantzan jarri zituen ikusleak ska doinu bizi eta freskoekin.

SAN PEDRO JAI ALAITSUAK PASA IZANA ESPERO DUGU!







LASARTEARRA
KIROL ETA KULTUR
ELKARTEA

Erribera kalea 10, atzealdea • Tel.: 943 362997 • LASARTE-ORIA

Ekainaren 28a

Egun ederra izan zen igandekoa. Txapelketak, dantza eta kantua, errakustaldiak, haurrentzako parkea, Oriako jaitziera, Sagardo dastaketa, kalea alaitzeko ekintzak eta danborradak izan ziren San Pedro eguneko bezperan. Ohiko ekintzak eta berriak izan ziren herritarren partehartze bultzatzeko. Harrera ona izan zuten ekimenek eta adin guztietako herritarrek ederki igaro zuten eguna.



Biyak Bat elkarteko lagunek lerroko dantza eta areto dantza erakustaldia egin zuten Okendo plazan.

Ohiko bola joko eta toka txapelketa izan ziren ere Michelingo kirol gunean.



Bakailu txapelketa arrakastatsua.- 19 bikotek parte hartu zuten aurtengo Bakailu txapelketan. Urtero bezala, Usapalek emandako bakailua modu onenean prestatu behar izan zuten parte hartzaileek. Eguerdirako dena prestatu zuten sukaldariak. Ainhoa Ormazabal Culinary Centerreko kidea, Iñaki Izagirre Juve y Camps cavaren ordezkaria, Martin Berasategi, Txemi Zulaika eta Agustin Boveda sukaldariak osatu zuten epaimahaia eta ez zuten lan erraza izan. Orokorrean maila oso altua izan zela komentatu zuten. Guztira 8 sari eman ziren baina lehenengoa eta nagusia, Patxi Castro eta Carmen Palañarentzat izan zen. Bikoteak prestatu zuen goizeko bakailu goxoa. Carmen Tarragonako Torredembarrik etorria da egun batzuk herriko lagunekin pasatzera eta pozez zorutzen zegoen sariarekin. Elkarteen onenaren saria Marian Buenok hartu zuen Buruntzapiren izenean. Bera izan zen txapelburua Ane Miren alabarekin batera.



**Gas-instalazioak,
berokuntza eta iturgintza**



Ordutegia

**9:00 - 13:00
16:00 - 20:00**

SAN PEDRO GAS

**Kale Nagusia 69, behea • Tel: 943 360165
LASARTE-ORIA**

**SAN PEDRO JAI ZORIONTSUAK
PASA IZANA ESPERO DUGU!**





Danbor hotsek hartu zuten herria.- Haur eta gaztetxoek danborradak ibilbidea egin zuen Manuel Lekuonatik hasita eta herriko erdigunetik. Astatoko entseguen ostean, denak gogotsu zeuden ikasitako doinu guztiak jotzeko. Horrela, ibilbideari ekin aurretik, Lasarte-Oriako ereserkia jo zuten denek zuzendarien aginduei jarraiki. Ondoren eta gurasoen argazkien artean, irten ziren ibilbidea egitera. Udaletxe zaharrera iristerakoan udal ordezkariak atera ziren balkoira hauek agurtzera. Danbor hotsak herritik zabaldu ondoren, Okendo plazara bueltatu ziren denak eta bertan amaiera eman zioten danborradari berriz ere herriko ereserkiarekin.



Kantu-dantza jira egin zuten Xumela eta dantza plazako lagunek eguerdian. Egun berezia izaki, beste herri batzuetako kideak izan zituzten lagun Hondarribi, Zarautz, Usurbil eta Donostiako kantu jiretakoak.

SANCHO TABERNA

**JAI ZORIONTSUAK
IGARO IZANA
ESPERO DUGU**

**Kaxuela,
Pintxo eta
Morunoetan
espezializatua**

**HITZARTUTAKO
eta
TALDEENTZAKO
MENUAK**

**Ogitartekoak
Pintxoak
Plater konbinatuak
Eguneko menua**



Oriamendi enparantza 1 behea • Lasarte-Oria • Tel.: 943 372075



Oria ibaiaren jaitsiera Sorgin Jaien ekintza errotuenetakoa bilakatu da. Honetan aurten ere asko izan ziren parte hartzera animatu ziren lagun taldeak. Mozorrotuta eta edozein motatako ontziekin hamar bat talde izan ziren Zumaburuko parketik Hipodromoko zubiraino ibaia jaisten ausartu zirenak. Ohi bezala, uretara sartu ez baina hainbat herritar bildu ziren zubian edo ibilbidean haiei animoak ematera.



Zero Setteren Jai Band-ak girotu zuen plaza, ostean sagardo dastaketa eta erromeria izan ziren jai giroan murgilduta jarraitzeko.



Zumba eta Jumping-fitness erakustaldiak jendetza erakarri zuen Andatzara, apar festan umeek ederki gozatu zuten Elizatzen eta Kale Nagusian Los Artistas del gremio txarangak jai giroa berriz berotu zuen.




SAN PEDRO JAI ZORIONTSUAK PASA IZANA ESPERO DUGU !

Saustatxo

Kultur Elkarte





Uzturre plaza 8 • Tel.: 943 364942 • 20160 LASARTE-ORIA



Benjamin Gorostegi, Txema Berasategi eta Candido Pecharromani omenaldi txikia egin zien ATLOk. Benjaminek eta Txemak 30 urte daramatzate danborradan, Candidok azken urtea zuen.



Musika eta danbor hotsak. - Beteranoen danborradak girotu zituen herriko kaleak. Candido Pecharroman herritarrek bere azken danborrada jo zuen. Omenaldi xumea egin zion ATLO elkarteak ekitaldiari hasiera eman aurretik. Benjamin Gorostegi eta Txema Berasategi ere igo ziren oholtza gainera omenduak izateko; 30 urte daramatzate danborradan parte hartzen. Candidok utzi egin ditu danborra eta makilak, baina etorkizuna bermatuta dauka danborradak, guztira ia 200 herritarrek astindu baitzituzten danborrak gauean zehar. Okendo plazara hainbat herritar hurbildu ziren danborradaz gozatzera, eta ez ziren damutu, oso maila ona erakutsi baitzuten danborra jotzen aritu diren herritarrek. Ondoren, herriko kaleetan barrena abiatu ziren, ikusleak segika zizutuztela. 01:30ean amaitu zen ekitaldia, baina hori baino lehen udaletxe zaharrea geldialdia egin zuten hainbat pieza jotzeko, udaleko hainbat ordezkariren begiradapean. Danbor hotsez gain ordea, beste zenbait estilotako musika ekarri zuten Bihotzkada, Rok Kam Broom eta Erokomeri taldeek. Gaueko ordu txikietara arte luzatu zuen parranda batek baino gehiagok.



Okendo plaza danbor eta kupel hotsez bete zen igandean. Herritarrek ikuskizuna ikustera hurbildu ziren.



Gastadoreek ere lan ederra egin zuten danborradan.



ZUBIETA MOTOR

Zubieta Motor Autocentro Gipuzkoarekin elkarlanean, **salmenta** eta **salmenta ondorengo** marka berriak aurkezten dizkizue



Mota guztietako ibilgailuak konpontzen ditugu



OSO ONDO PASA IZANA ESPERO DUGU!



PEUGEOT



HONDA



KIA MOTORS



TATA



SSANGYONG

Oria etorbidea 4, 6. lokala • LASARTE-ORIA Tel.: 943 376940 / 360009 • Faxa: 943 372689



Elkarte ezberdinetako kantinerak izan ziren danborradari bide egin zietenak. Atzetik 200 bat danbor jole eta sukaldari izan ziren herriko kaleetatik barrena.



Ohiturari jarraikiz, Udaletxe zahar aurrean ere jo zuen danborradak.



Bihotzkada, Rok Kam Broom eta Erokomeri izan ziren Okendo plaza alaitu zutenak. Ordu txikiak arte dantzan egon ziren herritar asko.

Ubsla  **Garajea**

MEKANIKAKO ZERBITZU OROKORRA

San Pedro jai onak pasa izana espero dugu !

Jaizkibel plaza 2, behea • Tel.: 943 370203 • LASARTE-ORIA

Iturgintza Urbasa

Iturgintza Berogailuak Energia berriztagarriak Gasa

SAN PEDRO JAIETAN EDERKI GOZATU IZANA ESPERO DUGU!!

Txartel Kalea 17 4.B Lasarte-Oria Tel.: 647 821364 infourbasa@gmail.com

OSO ONDO PASA IZANA ESPERO DUGU !

Etorri gure jaki goxoak probatzera

VINA del MAR  **TABERNA-KAFETEGIA**

Ola kalea 2 • Lasarte-Oria • Tel.: 943 362768

Ekainaren 29a

San Pedro eguna

Biyak Bat eta Ostadar-Saiarre K.T elkarteek omenaldia jaso zuten Manuel Lekuonako ekitaldi berezian. Pilota partidak, herri kirolak, Extremadurako jaki dastaketa eta doinuak, haurrentzako jolas eta antzerkiak eta bertso saioa izan izan ziren besteak beste jaietako azken egunean. Urtero bezala Atsobakarretik jaurretako su festarekin amaiera eman zitzaizen San Pedro jaiak.



Ostadar S.K.T-ko eta Biyak Bateko kideek oroigarriak jaso zituzten Jesus Zaballos alkatearen eskutik.



Urtetako lanari aitortza.- Imanol Bardaji Ostadarreko lehendakariak esker oneko hitzak izan zituen elkartearen ibilbide luzean modu batera edo bestera parte hartu duten herritarrentzat. Aldarrikapenerako ere baliatu zuen tarte eta udalari herriko kirol instalazioen hobekuntza beharrezkoa dela azpimarratuta, esparru honetan lan egitea eskatu zion. Jarraian, Biyak Bateko kideen txanda izan zen. Hauek ere oso eskertuta azaldu ziren eta orain arte bezain aktibo mantentzeko konpromisoa azaldu zuten. 60 urtetik gorako herritarrak ere animatu zituen Adela Mansok elkartearen izena ematera. Horretaz gain, eskera bat ere egin zuten udal ordezkariari eta 37 urte dituen egoitzan hainbat berrikuntza lan egin behar direla esan zuten. Udal ordezkari guztiak oholtzara igo ziren omenuekin eta Lasarte-Oriako ereserkia abestuz amaiera borobila eman zioten.



Goizetik hainbat ekintzaz gozatu ahal izan zen, gaztetxoek tokan eta bola jokoan aritzeko aukera izan zuten Okendon. Asko izan ziren probatzera animatu zirenak.



SOCIEDAD CULTURAL
DEPORTIVA RECREATIVA

UDABERRI

elkartea





Andatza plaza z/g, behea
Tel.: 943 371983
LASARTE-ORIA

JAIK PRIMERAN
IGARO IZANA
ESPERO DUGU



Jubenilen pilota partida jokatu zen lehenengo eta ondoren ikusmina piztu zuen binakako partida, Saralegik eta Elolak Arteaga eta Gorrotxategi izan zituzten aurkari.



Azkenean Arteaga eta Gorrotxategi aurreratu ziren 22-19ko emaitzarekin. San Pedro eguna izanda, askok ohiturari jarraitu eta mezara joan ziren, bertan Alboka eta Erketzekoek parte hartu zuten.



Haurrentzako ur jolasak izan ziren goizean zehar Isla plazan. Okendon berriz, Extremadurako elkarteak migak banatu zituen eta ilara luzeak osatu ziren plazan.



Ecós de Extremadura Errenteriako taldeak emanaldia eskaini zuen eta Lasarte-Oriako Txaranga berriak herrian zehar aritu zen doinu alaiak joz.



D e n e t a r i k o ekintzak.- Herri kirolen erakustaldia izan zen Elizatze plazan meza amaitzean, aizkolariak eta Beñat Telleria herriko harri-jasotzailea aritu ziren ikuskizun ederra eskaintzen. Arratsaldean berriz, haurrentzako jokoak, antzerkia Okendo plazan eta Aterpea elkarteak antolatutako sardina janaz gozatzeko aukera izan zuten herritarrek. Biyak Batekoak konpartsan ateraziren iaz berreskuratutako ohiturari jarraipena emanaz.



Aterpea elkarteak ohiko sardina dastaketa eskaini zuen Okendon, ilara luzeak egin ziren jaki hau dastatu ahal izateko. Bestalde, Biyak Bateko kideak oso animatuta atera ziren euren konpart sarekin dantzan.



ALBOKA
Abesbatza
LASARTE-ORIA



*Gustuko
al duzu abestea?
Zatoz gure artera!*

OSO ONDO IGARO
IZANA ESPERO DUGU!

Tel.: 690 059 591
Lasarte-Oria



Goi mailako bertso saioa izan zen Manuel Lekuonan Ttakunek beste urte batez antolatutakoa. Denak bikain aritu ziren eta bertso zaleak pozik agertu ziren bertan entzundakoarekin.




Su festak amaiera eman zien jaiak.



Kale Nagusian zehar azken zezen-suzkoak izan ziren eta gaztetxoek ez zuten aukera galdu.



Kaoba taldeak dantzan jarri zituen Andatzara gerturatutako herritarrek, kanta ezagunak abestu zituzten eta horrek ere lagundu zuen festetako azken parrandan,



Abibak disko festa egin zuen Okendon eta bertan batez ere gaztetxoak izan ziren dantzan. Honekin agurtu zituzten San Pedroak datorren urtera arte.

Jaietan hamaika aurpegi

Herritarrek dira jaietako benetako protagonistak eta aurtengoan eguraldi ona lagun, kalera atera eta festaz gozatu dute familian zein lagunekin. Hauek dira herritarrek bidalitako argazki batzuk.



Haur zein gaztetxo lagun taldean gozatu dituzte askok San Pedro jaiak.

Sorgin dantzan atera aurretik dena bere lekuan dagoela ziurtatu zuten dantzariak, bestetik barraka eta postuetatik jendetza pasa da egun hauetan.



Ostiral arratsaldean aurreko eguneko parrandari lasai-lasai aurre eginez.



Zikiro afarian ederki afaldu zuen lagun talde honek parranda gauari ekin aurretik.



Sarek deituta euskal presoek momentikoa burutu zen larunbat eguerdian. Jaietan tarte bat hartu eta preso eta senideei elkartzasuna adierazi nahi izan zioten ekitaldi xumearekin.





Doinu afrikarrak ekarri zituen talde batek jaietara, jendea hauek entzutera geratzen zen.



lñigo Artola talde guztiekin izan da festa hauetan ere, tartean Ze Esatek! donostiarrekin. I.ARTOLA



Gatiburen kontzertuaz gozatu zuen lagun talde honek.



Gauetan ere barraketan jende pila ibili da batez ere gaztetxo taldeak elkartu dira hauetan.



Parranda gau luzeak izan dira herritar askorentzat, kontzertuez gozatu eta ordu txikiak arte kalean.



Beteranoen danborrada ikustea jaietan galdu ezin den zita da herritar askorentzat. L.ERRAZKIN



KULTUR EMBLEMA Ttakun

Agenda

Ostirala 03, 21:00etan, Okendo plaza



Sun Magoaren ikuskizun paregabea

Adin guztietarako eskainitako ikuskizun liluragarri eta berria da Sun Magoak dakarrena. Magoak bere unibertso magikoan barnertuko ditu ikusleak. Gaur egungo show-rik zoragarriena aurkezten du, agerpen eta desagertuenekin, lebitazio ezinezkoekin eta magia interaktiboarekin, ikusleak protagonista izanik. Ikuskizuna misteriozko halo eta estetika zaindu batekin ikusleak harritzea lortuko du. Ilusioa eragin eta gauza ezinezkoekin amets egitea lortuko duela dio Sun Magoak. Doan izango da.

Lasarte-Oria

Zinea

OKENDO PLAZA

Osteguna 09, 22:00etan

"La vida inesperada" / "La familia Berlier". Eguraldi txarra egitekotan Elizatze plazan. Gaztelez.

Osteguna 23, 22:00etan

"Lucy" filma eskainiko da. Gaztelez.

Dantza

OKENDO PLAZA

Osteguna 10, 20:00etan

"Divenire" ikuskizuna Circle of Trust & Logela Multimediaren eskutik. Eusko Jaurlaritzak sustatutako Lasarte-Oria Dantzan ekimeneko saioa da.

Antzerkia

OKENDO PLAZA

Osteguna 16, 19:00etan

Eidabe K.E-ren "Sardina Freskua" haurrentzako jai-berbena. Eusko Jaurlaritzako kale antzerkia bultzatuz ekimeneko saioa izango da.

Ostirala 17, 20:00etan

Malas Compañias taldearen "Txatarra" lanaz gozatu ahal izango da. Hau ere Eusko Jaurlaritzako kale antzerkia bultzatuz ekimeneko saioa izango da.

Azoka

OKENDO PLAZA

Igandea 19, egun osoa

Urtero legez, XXXI. Santa Ana Artisau azoka ospatuko da. Sendoki Kultur Bartzordeak antolatuta.

Jaiak

OKENDO PLAZA

Igandea 26, 22:00etan

Santa Ana parodia antzeztuko dute herritarrek.



Herritarren txokoa

Udako ordutegia kiroldegian

Uztailaren 1etik abuztuaren amaiera arte, udako ordutegia egongo da kirol instalakuntzetan.

Honen arabera, astelehenetik ostiralera igerilekua 07:00-12:30 eta 17:00-21:30 bitartean irekia izango da. Kiroldedia, 7:00-13:00 eta 17:00-22:00. Sauna: 9:00 - 12:00 eta 17:00 - 21:00 zerbitzua erabiltzeko alde aurretik -gutxienez ordu 1, gehienez 24 ordu- eskatu behar da kiroldegiko atarian.

Larunbatetan eta jai egunetan 09:00etatik 13:00etara erabili ahalgo dira instalakuntzak eta igandetan itxita egongo da. Sauna itxita egongo da.

Michelingo kirol gunea,

Oharrak, kexak edo eskutitzak: Geltoki kalea, 4 943 366858
txintxarri@txintxarri.info

Eskutitza

Gipuzkoako ahalzun nagusi berri den Markel Olanok hautaketa saioan egindako adierazpenen arabera "herritarren borondatea errespetatu eta elkarrizketara eta eztabaidara irekia" egongo da eta "hondakinen kudeaketaren arazoa, ekonomia, sozial eta ingurumen jasangarritasun irizpideekin konponduko du behin betiko". Adierazpen hoiek itxaropenerako tarterik uzten badute ere, ezin dugu gure kezka ezkatatu, adierazpen hoiekin nekez ezkon daitzeko ondorengo adierazpenak egin baititu.

Izan ere, "Hondakinen planean (GHHKPO) aurrikusitako errauste planta eraikiko" dutela esan baitu. Azken esaldi hau ez dator bat bere diskurtsoan aipatutako adostasuna bilatzearekin, Markelek jakin baitaki, Gipuzkoan ez dagoela inolako kontsentsurik errauste planta eraikitzearen inguruan, ez ordezkaritza politikoen artean

ez eta jandartean ere. Hori gutxi balitz, errauste planta inposatzea ez dator bat aipatu duen bezala hondakinen kudeaketari ingurumen jasangarritasun ikuspegi batetik irtenbidea ematearekin.

Eta beharrezkoak diren beste azpiegiturak?

Kezka eragin digun beste puntu garrantzitsu bat, gogora ekarri duen azpiegitura bakarra errauste planta izatea da. Hain zuzen ere, errauste planta da, hondakinen kudeaketari dagokionez, Gipuzkoarren artean zatiketa eragin eta adostasuna eragozten duen azpiegitura bakarra. Irtenbide jasangarri batekin lotuta dauden bestelako azpiegiturak ez aipatu izana kezkarria da, hala nola, Gipuzkoan gaika biltzen den organiko guztia konpostatu ahal izateko dagoen azpiegitura defizitari buelta emateko beharrezkoak diren konpostatze plantak, errefusa

egonkortzeko eta bertatik birziklatzeko material gehiago lortzea ahalbidetuko lukeen TMB planta eta abar.

Zero Zabor: irtenbide jasangarri adostua bilatzeko prestutasuna

Zero Zabor ingurumen babeserako elkartetik elkarrizketa eta aipatutako eztabaida ireki horretarako prestutasun osoa azaldu nahi diogu Markeli. Are gehiago, hondakinen kudeaketaren arazoi irtenbide jasangarria eman nahi baldin bazaio ikuspegi sozial, ekonomiko eta ingurumeneko batetik. Hurrengo hilabeteek erakutsiko digute diskurtsoaren zein zati hautatzen duen aurrera egiteko. Gu bi aukeratarako prest topatuko gaituzte bai politikoei bai eta jendar-teak ere.

ZERO ZABOR INGURUMEN BABESERAKO ELKARTEA

San Pedro Jaietako argazki eta bideoak
txintxarri.eus
atarian dituzue ikusgai

LUIS CAR

autobusak

OSO ONDO PASA IZANA ESPERO DUGU!



- Espainiako eta nazioarteko garraio-zerbitzuak.
- Enpresentzako, ikastetxeentzako...zerbitzuak.
- 15 plazako mikrobusak.
- 55 plazako autokarrak.
- Elbarrientzat behar bezala prestatutako autokarrak.



Uzturre plaza 1 Tel./faxa:943366316 Mobila: 629461897 LASARTE-ORIA



**USURBILGO
LANBIDE
ESKOLA**

IEFPS USURBIL GLBHI

MATRIKULA EPEA:

UZTAILAREN 16tik 21era

GOI-MAILAKO
ERDI-MAILAKO
**HEZIKETA
ZIKLOAK**



Elektrizitatea



Mekanika



Administratza



Energia eta ura

Mantenimentua



Arbitza bidea 29 (Zubieta)
20170 USURBIL
Tel.: 943 364600

eskola@lhusurbil.com

LASTER
TOLOSAN
ZABALIK



RPS:233/13



Ola Kalea, 10 20160 Lasarte-Oria • San Bartolomé, 22
20870 Elgoibar • Gipuzkoa. T 943 366 377

Maitete B ETELU

JAIK ONGI IGARO IZANA ESPERO DUGU!!

- B** Aseguruak
- B** Etxebizitzen administrazioa
- B** Gestoria
- B** Aholkularitza
- B** Inmobiliaria zerbitzuak



Aralar plaza 4 behea • Lasarte-Oria
Tel.: 943 364886 • Faxe: 943 372117

